

Herritarrek

2016ko apirila

INFORMATZEN

Udalgintza informazioa 2015-2019

3. alea



www.berastegi.eus

2015eko AURREKONTUA

1. Aurrekontuaren likidazioa: Azken aste honetan itxi da behin betikoz 2015eko Aurrekontua, iristeko zeuden azken fakturak iritsi eta ordaindu direnean. Sarrerak eta gastuak, jasotako diru-laguntzak eta egindako inbertsioak kontuan hartuta, balantzea ona izan delakoan dago udal gobernua. Aurrekontua itxita, 273.233,16 euroko gerakina daukagu udal kontuetan.

UDAL FUNTZIONAMENDUA

2. Garbitzaileak udal langileen taldera: Xoilan enpresaren eskutik udal eraikinen garbiketa lanetan ari ziren garbitzaileak udal langileen lan-taldean barneratzeko erabakia hartu du udal gobernua, zerbitzu publikoak diru publikoaz hornitu behar direla sinetsita, eta ez kanpoko enpresen eskuetan utziz.

Lehendik lanean ari ziren bi garbitzaileei egin zaie eskaintza aurrea. Bati zeukan lanaldia mantentzekoa; hau da, Haurreskola, eskola, aparkaleku-azpia eta frontoiko komunak garbitzen egunean 5 ordu eta erdiko lanaldiarekin jarraitzekoa; eta honek onartu egin du udal gobernuaren proposamena.

Bigarren garbitzailearen kasuan, lanaldia luzatu beharra ikusi dugu, udaletxean zerbitzuak ugaritu ahala (mediku-kontsulta, liburutegia, kultur solairuko gelak...) garbiketa-beharrak ere gehituko direla kontuan hartuta. Esan behar da, kalkuluak eginda, bigarren garbitzaileari lanaldia udaletxeko langile bezala luzatuta, zerbitzua Xoilan espresari emanda baino urtean ia 9.000 euro merkeago ateratzen zaiola Udalari. Lanaldia luzatzeko eragozpenik ez, beraz.

Udal eraikina oso-osorik, Ategiko lehen solairua eta eskailerak eta frontoia garbitzeko lanaldia egunean 5 ordura luzatzea proposatu zitzaion bigarren garbitzaileari, eta honek ezezkoarekin erantzun zion eskaintzari.

Beraz, bigarren garbitzailearen kontratazioa martxan jartzea erabaki zuen udal gobernua. Otsailaren 1etik 10era arteko epea ireki zen izena emateko, eta aurkeztu ziren 11 izangaiak errolda, hizkuntza, lan-esperientzia, famili zama eta errentaren araberako puntuazio-sistema baten bidez baloratu eta zerrendatu ziren. Handik lan-poltsa osatu da, eta garbitzaile-postua Julene Arejulak lortu du. Otsailaren 15etik lanean da. Printzipioz 6 hilabeteko kontratua egin zaio, baina luzatzeko aukerarekin.

3. Liburutegiko langilearen kontratazioa: Apirilaren bukaerarako bukatua izango du langileak katalogazio-lana, eta laster zabalduko ditu ateak udal liburutegi berriak. Goiz eta arratsaldez irekitzeko asmoa du udal gobernua: goizez, 10,00tik 13,00ra eta arratsaldez 16,00tik 19,00ra.



Goizekoaz Kontxi Belauntzaran arduratuko da. Hemendik aurrera, 9,30etik 16,30era arteko lanaldia izango du; eta liburutegiaz gain, espedienteen kudeaketaz, Udalari dagozkion zergen kudeaketaz eta eguneko artxiboa zaintzeaz eta eguneratzeaz arduratuko da. Udal bulegoetako harreran eta kontabilitate eta administrazio-lanetan Eli Lujanbiok jarraituko du.

Liburutegia arratsaldez ere ireki ahal izateko, lanaldi erdiz, bigarren liburuzain bat kontratatzea erabaki du udal gobernua. Honek kultur dinamizazioko lanak ere egingo ditu. Egunean 3 ordu eta erdiko lanaldia izango du. Interesatuak **apirilaren 25etik maiatzaren 3ra arteko epea** dute izena emateko. Kontratua maiatzaren 9an jarriko da martxan.

Herritarrei dei egiten diegu etxean dituzten eta liburutegirako egokiak izan daitezkeen liburu, cd eta dvd-ak udaletxera ekar ditzaten. Udal liburutegian egingo zaie lekua.

4. Herri-langilearen kontratazioa: Maiatzaren erdialdetik azaroaren erdialdera arte kontratatuko da herri langilea, 6 hilabeterako, lanaldi osoz aritzeko. Herri-langileen ohiko lanez gain (kale-garbitzeta, hondakinen bilketa, festetako eta Kultur Asteko lanak...), zenbait igeltseritza-lan ere egin beharko ditu: biltegi berriko lanak, kanposantu zaharreko obra, Arbideko erreka obra, Elduako plaza eta parkea etab. Beraz, igeltseritzan esperientzia izatea baloratu egingo zaie izangaiei. Interesa dutenek **maiatzaren 2tik 10era arteko epea** dute izena emateko. Maiatzaren 16an hasiko da langilea lanean.



5. Herriko taberna eta jatetxe zerbitzua Ategin: Gaztainondo Elkarteko arduradunekin hitz egin du alkateak, baita etxe babestuetako bizilagunekin ere, eta ez dute inolako oztoporik jarri Ateginiko beheko solairuan herriko taberna eta jatetxe zerbitzua jartzeko. Alderantziz, proposamenaren oso aldeko azaldu dira.

Eskualdeko beste herri batzuetako ereduak aztertuta (Hernialde, Anoeta...), kontzesio-hitzarmenerako pleguak prestatu ditu dagoeneko udal gobernua, eta martxoaren 22ko ezohiko batzarrean onartu ere bai. Orain taberna-jatetxearen kudeaketa hartu nahi luketenen **maiatzaren 5era arteko epea** dute beren proposamenak udaletxean aurkezteko.

6. Bake-epailearen hautaketa: Epea bukatuta inork izenik eman ez duenez, lehendik zegoenak, Iker Saizarrek, jarraituko du herriko bake-epaile izaten.

HIRIGINTZA

7. Kultur solairurako diru-laguntza: Iritsi da 2015ean kultur solairuko obra finantziatzeko onartua izan zitzaigun laguntza. 86.000 euro jaso dira Eusko Jaularitzako Erein laguntzetatik.

8. Plaza ixteko plana: Udal gobernua plaza berritzeko proiektua ere Erein diru-laguntzetara aurkeztu zuen, 2016ko deialdira, 400.000 euro inguruko aurrekontuarekin, baina aurten gure eskaerak ezezko erantzuna jaso du. Itxura denez, ez ditu onartua izateko baldintzaren batzuk betetzen.

Proiektu handiak eta herrientzat berebiziko garrantzia dutenak finantzatzeko izaten dira Ereineko diru-laguntzak; baina aurten ez dira asko izan laguntza jaso dutenak: aurkeztu diren 250 proiektuetatik 70ek bakarrik jaso dute laguntza, eta gurea kanpoan geratu da.

9. 2016ko inbertsioak: Plaza berritzeko finantziario aukerak agortu zaizkigunez, ondorengo lanak lehenetsi ditu udal gobernua aurtengo inbertsioen artean: Maiezkonetik Zubizabaletara arteko bideko konponketa-lanak (Goitu S.L. ari da horretan), Zaraguetaneko urbanizazio-plana (desjabetzea martxan da), Oporleku ataria, autobus geltokia eta Elduako plaza eta parkea.



10. Irisgarritasun planari begirako laguntzak: Udalak Eusko Jaurlaritzari egindako bi laguntza eskaerak onarpena jaso dute, eta herrirako diseinatu zen Irisgarritasun Planeko bi proiektu laguntzeko balioko dute: batetik, Zaraguetane parean espaloia eta hiru zebrabide egiteko, 14.000 euro jasoko dira 3 urtetan (aurrekontu osoa 59.000 euro gehi bez-ekoa da); eta, bestetik, Oporleku parean espaloia eta Etxeluzera zebrabidea egiteko 8.000 euro jasoko dira 3 urtetan (43.000 euro gehi bez-ekoa da aurrekontu osoa). Kostu osoaren %20a bakarrik finantziatuta, ezin esan laguntza hauek sostengu handi direnik, baina bada proiektu hauek berak beste diru-laguntza batzuetara aurkezteko aukera ere.

Irisgarritasunari lotuta, ispilu berriak jarriko dira Lizarragako bidegurutzean eta aparkaleku berriaren irteeran. Seinalazioan ere zenbait hobekuntza egingo dira: batetik, plazaren sarreran, kotxeak aparkaleku berrira bideratzeko; eta, bestetik, eliz bueltan.

Bestalde, Tolosatik Leitizarako errepide nagusian (Modesto eneko kurba inguruan, batez ere) abiadura murrizteko neurriak eskatu zaizkio Aldundiko Errepide Sailari; epe laburrean proposamena jasotzea espero dugu.

Eta puntua osatzeko, herritarrei gogorarazi nahi genieke plaza itxitakoan Maiezkonetik Zubizabaletara arteko bidea bihurtuko zaigula herriko sarrera eta irteera nagusi; beraz, bidea libre beharko dugula kotxeak bi norabideetan ibiltzeko. Ezingo da Basurde Elkartearen parean eta Sastitxar inguruan aparkatu. Aparkalekuak egokitu dira, eta ez dago ondo aparkatu ezinik.



11. Ategiko eremua: Urtarrilaren 29an sinatu zuen hitzarmena EH Bilduko udal gobernua eraikuntza-enpresarekin. Eraikiko den lehen blokeko 9 etxebizitzaren kalitateari eta prezioari dagozkion baldintzak adostuta, otsailaren 29tik martxoaren 23ra arteko epea izan dute interesatuek izena emateko.

Gutxienez azken 3 urteetatik herrian erroldatuta egotea eta jabetzan beste etxebizitzarik ez izatea izan dira kontuan hartu diren bi lehentasunak, izangaiak baloratzerako orduan. 4 herritarrek eman dute izena, eta 4rek ere etxebizitza eta garaje desberdinak lehenetsi dituztenez, azkenean ez da zozketarik egin behar izan. Zuzenean esleitu zaizkie etxebizitza eta garajea.

Eraikitze-lanak ekain edo uztail aldera hasiko dira, eta 2017 bukaera aldera amaituko. Obra bukatu bitartean, indarrean egongo dira bai udal gobernua eta eraikuntza-enpresak sinatutako akordioa, baita udal gobernua erosleei begira hobetsitako bi lehentasunak ere. Behin obra bukatuta, enpresa-eraikitzailearen esku geratuko da etxebizitzaren salmenta.

12. Konponketa-lanak Ategin: Teilatuko belusetatik eta tximini ertzetatik ura sartzen zen. Honetan aritzen den igeltsero bikote bati eman zaio konpontzeko lana, eta 1.800 euroko kostua izan du. Hala ere, teilatuko ubideak zikinduta daudenez, oraindik ere itoginak daude; eta, beraz, ubideen garbiketa egiteko aurrekontuak eskatuko zaizkie horretan aritzen diren bi enpresari.

Diru-laguntza baten harira, udal gobernuak eskolan eta Ategin azterketa energetikoak egingo ditu, energiaren aprobetxamendua hobetzeko. Lehen emaitzen arabera, Ategiko instalakuntzek aldaketak behar dituzte, hondatzen hasiak daude eta; eskolan, aldiz, zenbait aldaketa eginda, sistema energetikoki eraginkorrago izatea lortuko genuke. Lan hauek egiteko aurrekontuak eskatu zaizkie Geuk-ekoei eta Giroa-koei.

13. Parkeko sarreran hobekuntza lanak: Herritar batzuek, daukan arriskua ikusita, parkeko sarrera konpontzeko eskaera egin dute. Dagoeneko eskatu zaie aurrekontua Yeregi Anaiak errementariei, itxitura eta ate berria jartzeko.



14. Lanak udaletxeko biltegi berrian: Epe motzean trasteak eta erremintak sartzen hasteko, konponketa-lan batzuk egin beharra ikusi du udal gobernuak. Lurra konpontzeko eta paretei zarpeatu bat emateko aurrekontuak eskatuta daude. Gainerako hobekuntza lanak joango gara pixkanaka egiten.

15. HAPOaren bigarren modifikazioa martxan: Hainbat herritarren eskariari erantzunez, portxeak eta garajeak ixteko eta zabaltzeko araudian zenbait aldaketa egin dira. Aurrez zenbait baldintza beteta (neurri jakinak, erabilera zehatza, inguruko partzelekiko distantzia, mugantea eremu urbanokoa edo landa eremukoa den...) itxi edo zabaldu ahalko dira portxeak eta garajeak.

INGURUMENA



16. Hondakin arriskutsuak biltzeko txabola berria: Bi herritarrek ekarri dute proposamena udaletxera: neurri txikiko hondakin arriskutsuak (bateriak, pintura-poteak, cd eta dvd-ak, jostailuak etab.) biltzeko balioko duen txabola egitekoa. Udalak materiala, lanerako tokia eta erramintak jarrita, prest azaldu dira txabola diseinatu eta eraikitzeko; eta udal gobernuak begi onez hartu du proposamena.

Materialetan (lau paretak, teilatua eta konpartimenduak) 3.000 euro eskaseko kostua aurreikusi dute, eta txabola auzolanean egingo dutela adierazi digute. Txabola honek ondoan Garbigunera eraman beharreko hondakinentzat beste konpartimendu batzuk ere izango ditu. Dagoeneko ari dira lanean, eta aurki izango dugu prest txabola eliz atarian.

17. Arropak biltzeko ontzia Emausen esku: Arropak eta oihalak biltzeko eliz atarian dagoen zerbitzua Oldberrryk ez, Emausek kudeatuko du hemendik aurrera. Aipatutako gaiez gain, etxetresna txikiak eta jostailuak ere hartuko ditu.

18. Kale-argi berriak eta bonbilla zuriak: Opor leku inguruan, udaletxearen ondoan, Tolaretxea aurrean eta Urdinarrain auzoan hartuneak edo tomak lehendik badaudenez, farolak jartzea erabaki da.

Bestalde, Arelanekoei eskatu zaie aurrekontua, kale-argi guztiak argi zurizkoak jartzeko. Bonbillak aldatu aurretik, ikerketa luminikoa egitea gomendatu digu herriko aparejadoreak, gerora diru-laguntzak egonez gero ere.

19. Txakur kakak kalean: Udal gobernuak herritarrei gogorarazi nahi die txakur kakentzat egokitutako ontziak jarrita daudela herrian (plazan, Sastitxarren eta kanposantu atarian) eta erabiltzeko daudela. Denon ardura da gure herriko kaleak garbi eta txukun mantentzea.



LEHEN SEKTOREA, BASOGINTZA

20. Tolomendira bi laguntza eskaera: Gure eskualdeko landa garapeneko agentziara bideratutako eskaera hauek, alde batetik, Arbidetik gorako hormigoizko bidea luzatzeko eta, bestetik, lehen sektorearen inguruan herrian azterketa bat egiteko norbait kontratatzeko izan dira. Eta bigarren honetarako onartu digute laguntza: 6.000 euro eskatu eta 3.900 euro agindu dizkigute.



Berastegi ez litzateke den bezalakoa izango, nekazaritzarik eta abeltzaintzarik ez balego. Garrantzizko eta baliozko sektorea dugu gurean, nahiz eta indar eta proiektzio gutxikoa izan askotan. Udal gobernuak badu horren kontzientzia, eta hartua du, ahal duen neurrian, sektoreari bultzada emateko erabakia.

Ezer baino lehen, herriko lehen sektorearen inguruko azterketa egitea komeni dela ikusi da: lehenbizi, nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarri, zein egoeratan dauden eta zer asmo eta beharrian dituzten jakiteko, eta ondoren neurri eta plangintza zehatzak adostu, aurrera eramateko. 3 hilabeterako kontratatuko da datu-bilketa egiteko aztertzailea. Xehetasun guztiak lotutakoan egingo da deialdia.

21. Bilera Gipuzkoako Foru Aldundiko Baso Sailarekin: Otsailaren 15ean bildu ziren udal gobernuko hainbat ordezkari Aldundiko Basogintza Saileko hainbat arduradunekin. Herriarenak diren basoak, tartean, Leitzaran bailarakoak zein egoeratan eta zeinen eskumenean dauden eta zeinek zein eskumen dituen argitzen hasteko balio izan zuen bilerak. Lehen hartu-emanaren ondoren, bigarren bilera bat egitekotan geratu ginen.

22. Ipuliño mendia larre komunal bihurtzeko proiektua: 2007-2011 legealdian, orduko udal gobernuak sortu eta gorpuztu zuen egitasmo hau. Ipuliño mendiko eremu bat garbitu, larre egin eta erabilera komunala ematea du helburu. Geroztik ez du proiektuak aurrerapausorik izan, baina udal gobernuak egitasmoak bultzada merezi duelakoan dago. Tolomendin eta Tolosaldea Garatzenen proiektua aurkezteko asmoa dugu, baita Aldundiko Basogintza Sailean ere.



23. Artalekuko sartu-irtenen kontrola: Sarrera libre dago momentuan, baina kontrol bat eraman behar delakoan dago udal gobernuak. Ataka sendoago bat jarri eta koaduz giltzatzea da guk proposatzen duguna. Hartara, erabiltzaileek baimena beharko dute sartzeko. Baimenik gabe sartzen direnei, berriz, isunak jarriko litzaizkieke. Herrikoak ez diren erabiltzaileei tasa bat kobratzeko aukera ere aztertzen ari da udal gobernuak.

ESKUALDEKO eta LURRALDEKO BERRIAK

24. Leader diru-laguntzak: Europako diru-fondoetatik datoz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko landa eremuko 108 herri egin lezakete eskaera. Horietatik 18 Tolosaldekoak dira. 40 milioi euro daude esleituta, 5 urtetan zehar banatzeko, erkidego osoan; eskualdeko 18 herrirentzat, beraz, 1,6 milioi euro. Tolomendirekin elkarlanean, herri guztion artean plangintzak adostea izango da hurrengo pausoa.

MOTZEAN

GIZA ESKUBIDEAK.
IRTENBIDEA. BAKEA.
EUSKAL PRESOK
EUSKAL HERRIRA



25. Banderolaren auzia: Euskal presoek eskubide zibil eta politikoen aldeko banderolaren auzian estatuko abokatuaren aldekoa izan da epailearen ebazpena. Ebazpena firmea da, ez du helegiterik jartzeko aukerarik uzten. Beraz, banderola kendu egin beharko da udaletxe bakoitiko, eta epaiketa-gastuak ere ordaindu beharra tokatuko zaigu: 1.463,62 euro, guztira.

26. Frontoiko aldageletako berokuntza sisteman aldaketak: Udalak eta Erretoretxeak (etxebizitzek, ofizinak eta Basurde Elkartek) gasolio bidezko depositu bera erabili dute orain arte. Depositua kentzearen eta gas naturala sartzearen alde azaldu dira komunitateko alde guztiak. Banakatzea eta erabiltzaile bakoitzak bere kontadorea izateko aukera jarri da mahai gainean. Aldaketa baliatuz, udal gobernuak gerorako aparkaleku azpirako hartunea uztea ere interesgarri ikusi du.

27. Potentzialki arriskutsuak diren txakurren araudia: Herrian hozkatze kasu berri bat izan dela eta, txakur arriskutsuen inguruko araudia berriz ere aztertzea eta herritarren artean zabaltzea eskatu dute hainbat herritarrek. Udal gobernuak eskaria betetzearen alde da. Halako ezaugarriak dituzten txakurrek legez herrian errolatuta egon behar dute, eta beste zenbait baldintza bete.

28. Bi hitzaldi proposamen herritarrentzat: Goiener energia berriztagarrien aldeko kooperatibari buruzko hitzaldiak izan zuen arrakasta ikusita, eta beste eredu batzuk posible direla sinetsita, bi hitzaldi berri izango ditugu aurki herrian interesik duten herritar guztientzat, udal gobernuak antolatuta: bata, Fiare edo banku etikoei buruzkoa; eta, bestea, Kutxabanken iruzurrari buruzkoa.



GIZARTE ZERBITZUAK



29. Mediku-kontsulta berria: Martxoaren 4an egin zen inaugurazioa, udal gobernuko ordezkariak eta eskualdeko, Gipuzkoako eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko ordezkariak bertan zirela. Bezpera iluntzean ere ireki ziren kontsulta berriko ateak, bisitatu eta ezagutu nahi izan zuten herritar guztientzat.

Guztira 160.000 euro inguruko kostua izan du kontsulta berriak; Eusko Jaurlaritzak 80.000 euroko laguntza eman dio proiektuari, eta gainerako kostua Udalak hartu du bere gain.

30. Berdinbidean proiektua: Gipuzkoako Foru Aldundiko emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Sailak sortu eta bultzatutako proiektua da hau, eta 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan berdintasun politikak sustatzeko eta indartzeko helburua du.

Printzipioz, urtebeteko programazioa du; eta, horren barruan, besteak beste, mintegi kolektiboak antolatuko dira, udal hautetsien eta gizarte zerbitzuetako teknikarien parte hartzearekin, herriaren erradiografia bat egiteko asmoz, baita plangintza zehatzak diseinatu ere, herrian herrirako. Udalek diru bat bideratu beharra dute proiektu honetarako, 1.500 euro, hain justu ere.

Gaiari duen garrantzia aitortu eta herrirako baliagarria izan litekeela ikusita, Berdinbidean proiektuan parte hartzea erabaki du udal gobernua.

KULTURA

31. Inauteriak 2016: Urtarrilaren 29 eta 30ean ospatu genituen, eta egitarau betekoak eta jendetsuak izan ditugu aurten ere.

Ostiralean eskolako txikienen kalejiraren eta Guraso Elkartek antolatutako txokolatadaren ondoren, umeen dantza eta trikitixa emanaldiak izan genituen, eta ondoren Aiko dantzari ibiltaria eta pintxo potea.

Larunbatean, berriz, goizean goizetik mozorro kalejira egin zen Urepele Elkartek antolatuta, eta gero herri-bazkaria udaletxean, karaoke eta guzti. Festa osatzeko, luncha eta DJ Txokoren emanaldia izan zen Urepele elkartean.



32. Martxoak 8. Emakumeen Nazioarteko Eguna: Festa eta aldarrikapen egun honen bueltan, egitarau bete-betea izan dugu aurten, hainbat herritarren parte hartzearekin antolatua: martxoaren 4an, emakumeen afaria Basurde Elkartean; 5ean, Emakume Baserritarren Elkarteko Maider Aramendik eskainitako *Baserrira emakumearen begiradatik* hitzaldia; eta 6an *Amama* pelikularen emanaldia udaletxean, ondorengo Urepele Elkarteko txokolatada ahaztu gabe.



Martxoaren 8an, egunean bertan, elkarretaratzea plazan, adierazpen bat irakurtzeko eta egunari eskainitako kartela udaletxeko balkoian jartzeko; eta, bukatzeko, martxoaren 12an, *Greban gaude* antzezlan, Azpeitiko Lakrikun taldearen eskutik eskolako gimnasioan.

33. Herriko elkarteentzako diru-laguntzak: Alkatea herriko elkarte guztiekin bildu da, eta banan-banango bilerak egin ditu beraiekin, zein asmo eta beharrian dituzten aztertzeko. Elkarateek, beren aldetik, aurkeztu dituzte urtean zehar aurrera eramango dituzten egitasmoen eta dauzkaten sarrerara eta gastuen aurreikuspenak, eta horiek aztertu ondoren banatu ditu udal gobernuak laguntzak.

Bi irizpide hartu dira kontuan laguntzak banatzeko garaian: batetik, egitasmoek herritarrengan zein eragin eta irismen duten, eta bestetik elkarateek zer diru-baliabide dituzten egitasmoak aurrera eramanez ahal izateko.

14.000 euro ingurukoa zen herriko elkarteentzako diru-partida, eta Urepele, Basurde, Gaztainondo, Guraso, Aldin, Odol emaile, Txantxibiri, Belauntxingo, Sare eta Kristau Elkarateek jasoko dute laguntza. 2.500 euro inguru geratu dira banatu gabe, laguntzarik eskatu ez duten elkarateak ere badaudela kontuan hartuta eta behar berriak ere sor daitezkeela gogoan izanda.

34. Datorren urtean San Anton basilizak 100 urte: Herriko Kristau Elkarateak San Anton ermitako teilatua konpontzeko beharra ikusi du, eta mendeurrena iristear dela aprobetxatuz, konponketa-lanak aurrera eramateko asmoa duela jakinarazi dio Udalari.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 300.000 euroko partida du aurten kultur ondarea eta ondare historikoa berreskuratzen bideratzeko. Udal gobernuak jarri da harremanetan Aldundiko sail honekin eta proiektua laguntza hauen baldintzekin bat datorrela adierazi digute. Deialdia atera da dagoeneko eta eman zaio horren berri Kristau Elkarateari, eskaera eta aurrekontua prestatu ditzan. Elkarateak laguntza datorren urtean eskatuko duela erabaki du.



35. Burdina Taldearen egitasmoak: Lizarragako karobia eta herriko 2 labadero (Elutsekoa eta Igeraldekoa) berreskuratzen aurrekontuak aurkeztu ditu Andoaingo Burdina Taldeak. Ondare historikoa berreskuratzen eta ezagutarazten aritzen da lanean elkarte hau. Bi proiektu hauek ere kultur ondarea eta ondare historikoa berreskuratzen laguntzetara aurkeztea erabaki dugu.

36. Helduen bertso-eskola: Mikel Artola alegiarra prest agertu da gaztetxoei ez ezik helduei ere bertso eskolak emateko. Apirilaren 7an hasi zen taldea entsaiatzen. Ostegunetan 19,00an elkartzen dira. Oraingoz 9 lagunek eman dute izena.

37. Festak antolatzen bilerak: Hasiak gaude dagoeneko aurtengo Salontzoak prestatzen. Martxoaren 21ean egin zen lehen bilera elkarateetako ordezkariekin eta hurbildu ziren hainbat herritarrekin. Festa egunak zehaztuta geratu ziren (abuztuak 5, 6, 7, 9 eta 10), eta egitaraua josten ere hasi ginen. Bigarren bilera maiatzaren 2an egingo da, astelehena, 20,30ean.

38. Errenta aitorpena euskaraz: UEMArekin elkarlanean, dei egin nahi diegu herritarrei errenta aitorpena euskaraz egin dezaten, administrazioa euskalduntzeko eta euskarari bide berriak irekitzeko.